

Laguntasuna-Bruesak herriko txirrindulari taldeak gazteekin jarraitzen du beste urte batez

Txirrindularitzaren historiako garai ezberdinetan, Erreterriako txirrindulariak punta-punta ibili dira. Garaipen garrantzitsu asko lortuz eta txirrindularitzaren grina herrian zabalduz. Denongatik ezagunak dira, Luis Otañok, Perico Matxainek edo Txomin Perurenak lorturiko garaipenak.

Baina zenbait urte pasa dira herriak azken profesionala ezagutu zuenetik. Aurten Laguntasuna-Bruesak bere lehen profesionala atera du, Euskaltel-Euskadi taldean arituko den Alberto Martinez. Txirrindulari gazte hau ez da herrian bizi, baina herriko taldean eman zituen bere lehen pausoak eta taldeari lotua jarraitzen du. Taldearen aurkezpenean egon zen, txirrindulariei animoak ematen lana gogor egiten jarrai dezaten.

Laguntasuna taldea 1989an sortu zen, gazte mailan atera zuelarik talde bakarra. Gaur egun hamalau urtetik gorako maila guztietan du taldea. Alberto Martinezek pausoa eman du eta beste batzuk berak irekitako bidea jarraituz doaz.

Alberto duela sei urte hasi zen txirrindan ibiltzen, Laguntasuna taldean eta bertan lortu zituen bere lehen garaipenak. Ondoren, afizionatuetan, Gipuz-

koako eta Euskadiko txapeldun bilakatu zen urte ezberdinetan eta 1998-ko Donostiako Munduko Txapelketan parte hartu ondoren, profesionalen artera pasa zen, lehen esan bezala, Euskaltel-Euskadiren eskutik. Alberto txirrindulari indartsua da, erlojuaren kontra oetan ondo moldatzen den horietakoa.

Laguntasuna-Bruesak, herriko eta inguruko gazteekin egiten du lana. Lehen urteetan, gazte mailan bakarrik parte hartzen zuen, baina taldea handitzen joan da eta aurten beste hiru mailatan ere konpetituko du, 14-15 urtetik aurrerako maila guztietan. Denboraldi honetan, 31 lagun egongo dira Euskadiko lasterketa ezberdinetan parte hartzen.

lax garaipen mordoia lortu zuten maila ezberdinetan eta aurten jada, nahiz eta denboraldiaren zati handia bat falta, lortu dituzte zenbait garaipen. Denboraldi hasieran, pistako lasterketetan garaipen asko lortu dira eta hauekin batera karreteran ere emaitza onak lortu dira. Denboraldi bukaerarako berriro ere garaipen ugari pilotuko dituztela. Baina taldearen benetako helburua ongi pasatzea da, lagun berriak egitea. Garaipenak lortzen badira hainbat hobeto eta guztien artetik txirrindulari on bat ateratzen bada, oraindik hobe.





Gipuzkoako txapelketa. C.R.I. Alegia. 1997ko Maiatza-ren 20.

Gazte hauei laguntzeaz gain, Laguntasuna-Bruesak, urtero lasterketa bat antolatzen du, lasterketarik gabe ez baitago parte hartzerik. Lasterketa baten antolakuntzak lan eta gastu handia dakar. Lasterketa hau ere Bruesaren babesarekin gauzatzen da.

Txirrindulari gazte hauen atzean bada gizatalde bat laguntzen, bai lasterketetara haiekin joaten, bai entrenamenduak prestatzen eta gainbegiratzen. Pertsona hauek guztiak musu-truk ari dira eta beraien laguntza gabe ezingo litzateke taldea

aurrera atera. Denbora libreko ordu asko pasatzen dituzte gazteekin.

Taldearen aurrekontua aurrera ateratzeko, bazkideak daude, baina benetako diru laguntza BRUESA-k ematen du. Eskertzekoa da Bruesak ematen duen guztia, jasotzen duen gutxiarekin konparatuz. Diru laguntza honek ahalbidetu du, maila gehiagotan parte hartzea. Taldeak dituen gastuak handiak dira, diruditenak baino handiagoak: arropaz gain, lizentziak ordaindu behar dira, materiala ere oso garestia da eta bidaia asko egiten dira.